

ZURRUMURRUEN KONTRAKO TAILERRA: MIGRAZIOARI BURUZ DITUGUN ESTEROTIPOAK DESERAIKITZEN

- **Jakintza adarra:** Gizarte eta Lege Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
- **Gradua/k:**
Soziologia
- **Garapen-lekua (helbidea):** Barrio Sarriena z/g, Leioa

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Zurrunurruak pertsona edo taldeen inguruan egiten ditugun baieztapenak dira. Pertsona batetik bestera zabaltzen dira eta sinesgarritasuna dute, ez froga errealetan sostengatzen direlako, biztanleriaren parte handi batek sinesten dituelako baizik. Aurritziekin eta estereotipoekin zurrunurruak elikatzen dituzte. Migrazioaren eta pertsona emigranteen inguruan zurrunurru ugari dago hedatuta gurean, elkarbizitza eta gizarte kohesioa oztopatzen dituztenak.

Tailerrean migrazioari buruzko zurrunurruen kontrako lanketa egingo da. Horretarako, ikerketa teknika soziologikoak erabiliko ditugu. Lehenik, pertsona emigranteen inguruko aurreiritzi eta estereotipoak identifikatuko ditugu, ondoren, ikerketa soziologikoetan oinarrituz, horiek deseraikitzeke. Soziologia zurrunurruen kontra egiteko tresna ezin hobea da!

Tailerren helburua hirukoitza da:

- 1- Soziologiaren eta gizarte ikerketa tekniken oinarritzko aplikazioa egitea.
- 2- Gaurkotasunezko gaiak lantzeko Soziologiak eskaintzen dituen baliabideak frogatzea.
- 3- Ikasleei Soziologiarekiko grina piztea.

Helburu hauek lortzeko migrazioaren inguruko aurreiritzi eta estereotipoak identifikatu eta deseraikitzeke ariketa egingo dugu ikerketa teknika soziologikoak erabiliz.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

1. Zurrunurruen sorrera eta hedapena.
2. Migrazioaren inguruko aurreiritzi eta estereotipoak.
3. Migrazioaren inguruko datu estatistikoak.
4. Gizarte esku-hartzerako zurrunurruen kontrako estrategiak.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

1. Ikasleen artean migrazioari buruzko estereotipo, iritzi eta jokaerak identifikatzeko dinamika parte hartzaile bat burutuko da eta zurrumurruen kontrako estrategia azalduko zaie ikasleei.
2. Estatistika-iturriak aurkeztu eta landuko dira ikasleek identifikatutako estereotipo, iritzi eta jokaerak kontra-argumentatzeko, ikerketa soziologikoetatik eratorritako materiala erabiliz.
3. Ikasleei Soziologoek nola lan egiten duten erakutsiko zaie. Horretarako, informazioa zientifikoa bilatu, produzitu eta analizatuko dugu, fenomeno sozialen argazki ez distortsionatua lortze aldera.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2026-01-26	Gaztelania	Goizez	12:00 - 14:00	30
2026-01-26	Euskara	Arratsaldez	17:00 - 19:00	30